



(argazkia: Kultur Sharea)

BIZKAIA LIBURUAK LITERATURA NABARMENDUAK NAFARROA PORTADA

[BIDEOA] KRITIKA SOZIALA ALDE BATERA UTZI ETA IRAKURLEA DIBERTITZEA NAHI IZAN DU JON ARRETXEK BERE AZKEN ELEBERRIAREKIN

By KulturSharea / 2025-11-26

Jon Arretxek 'Txerriak eta loreak' liburua aurkeztu du, umore beltz ask...



***Txerriak eta loreak* da nobelaren izenburua eta umore beltz askorekin datorrela aurreratu du idazleak.**

Azken urteotan Toureren sagan zentratuta egon ondoren, guztiz bestelako nobela beltza dakarkigu oraingo honetan Jon Arretxe idazlea. Hiri handietako lunpen guneak alde batera utzita, egileak fabulatu duen trama berria bera bizi izandako hiru herrietan garatuko da: Basaurin, Gasteizen eta Arbizun. Eta etorkin, etxegabe, prostituta edo bestelako biztanle zaurgarrien orde, negozio aitorrezinetan diharduten bertoko aberats mafiosoak hartuko dute protagonismoa.

Arbizuko hestebete-lantegi batean gertatzen den txistor lapurreta misteriotsua da liburuaren abiapuntua, eta hortik aurrera umorez idatzitako trama beltza dator, oso beltza, erritmo bizikoa, elkarrizketa ugarikoa, “tarantinoar” estetikakoa.

Arretxeren esanetan, “lehenengo orrialdetik jada hildako batzuk daude, orokorrean hiltzaile asko daude nobela honetan, orrialde bakoitzeko inoiz baino gehiago”. Erritmo handiko trama dela ere aipatu du egileak eta “irakurlea harritzeko, ustekabez ondo hornitzen saiatu naiz”.

Erein argitaletxearen esanetan, “*Txerriak eta loreak* ezohiko nobela da, laburra eta pertsonaia bereziz hornitua”: Zuriñe Ruiz de Gordo gasteiztar mandatugile berezia da eleberri honetako protagonista. Honekin batera, Gabriel Abrisketa basauriar enpresari ustela edota Fermin Bakaikoa arbizuar txistorgile iluna ere ageri dira.

Zabald:

Tags: Arbizu, Basauri, Erein argitaletxea, Euskal Literatura, Gasteiz, Jon Arretxe, Txerriak eta loreak



GABRIEL ARESTI OMENTZEKO BI ZUZENAKO AURKEZTU DITUZTE BILBON

URIOLA ETA PREST! HEDABIDEAK BILTZEN DITUEN BLB KOMUNIKAZIO PROIEKTUARI AMAIERA EMANGO DIOTE ABENDUAN



UTZI ERANTZUNA

Iruizkinak bidaltzeko saioa hasi behar duzu.



Lege oharra

✉ albisteak@kultursharea.eus

Publizitatea

LAGUNTZAILEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA
Kultura eta Hizkuntza Politikako Saila (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua

Gipuzkoako
Foru Aldundia



ETORKIZUNA
ORAIN

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Euskara

LANKIDETZAK

HIRUTXULO
KOA
HITZA

ARGIA



KULTUR SHAREA

ZABALDU KULTURAREN LEIHO GUZTIAK ETA EUSKARAZ SHARETU